

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

53 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



2. Editoriala: Syrizaren bi aukerak: kapitalistekin negoziatu edo sozialismoaren alde borrokatu • 6. Karta Soziala eta martxoaren 14ko mobilizazioak • 8. EAJ: ate birakariak eta ustelkeria kasuak • 10. Ahal dugu-Podemos: Zein da gauzak benetan aldatzeko bidea? 12. Errepresioa: PP eta PSOEek berriro ere, zigor kodea gogortu dute 16. 3+2 dekretua: karreraren suntsiketa, gradu tituluen balio-galtzea, gehiengoarentzat kostu ordainezinak eta irakasleen kaleratze masiboak

Syrizaren bi aukerak: kapitalistekin negoziatu edo sozialismoaren alde borrokatu

Urtarrilaren 25eko hauteskundeetako emaitzak garaipen eztaba daezina izan ziren Greziako langile klasearentzat eta zapalduentzat. Syrizarik emaitza historikoa lortu zuen, Europan azken hirurogeita hamar urtetan gertatu ez dena sozialdemokraziaren ezkerrera dagoen alderdi batentzat: botoen %36,34a lortu zuen (2.246.064 bozka) eta 149 eserleku, gehiengo absolututik 2ra bakarrik geratuz. 590.000 boto gehiago lortu zituen 2012ko ekaineko hauteskundeekin alderatuz. Syrizaren garaipenak aldaketa bat markatzen du Europako eszenatoki politiko guztian. Murrizketen eta austeritatearen aurkako mobilizazioa bultzatuko du eta klase arteko borrokaren aro berri bati irekiko dio bidea.

Emaitzak jakin zirenean, Alexis Tsipras Atenaseko erdigunean bildurik zegoen jendetzara zuzendu zen: “Gaur oligarkiaren eta ustelen Greziak galdu du” eta “lanaren, ezagutzaren eta kulturaren Greziak irabazi du (...) borrokatzen duen eta esperantza duen Greziak irabazi du”. Azpimarratu zuen “gure garaipena austeritatearen aurka borrokatzen duten Europako herri guztien garaipena” zela. “Greziak aurrera egiten du, herri greziarraren erabakiak (...) Memoranduma ezeztatzen du. Troika iragana izango da Europan”.

GOBERNUAK IRAGARRITAKO LEHEN NEURRIAK

Klase arteko borrokaren dinamika fase berri batean sartu da Grezian. Akordio, bake sozial eta erdi bideko irtenbideetan maniobratzeko tartea erabat desagertu den garai batean iritsi da Syriza gobernura. Urtarrilaren 28an egin zen Minis-

troen Kontseiluko lehen bileran, gobernuak lehentasunak krisi humanitarioa konpontzea, zorraren bernegoiazioa eta iruzur fiskalaren aurkako borroka zirela iragarri zuen. Iragarritako lehenengo neurriak garrantzi handikoak ziren: 300.000 etxe baino gehiagotan

doako elektrizitatea bermatzea; DEI konpainia elektrikoaren pribatizazio prozesua “berehala” geldiaraztea, “interes publikoko enpresa bihurtuko delarik, irabazi asmorik gabeko irizpideekin funtzionatuz” eta berdin egitea helburu sozialen aurka doazen pribatizazio horien aurka ere, portuena eta aireportuena esate baterako; osasun sistema publikorako sarbide unibertsala berrezartzea, orain arte 3 milioi pertsona bazterturik baitzeuden, biztanleen %30a, eta ospitaletako arreta tasen (5 euro) eta errezeten (euro 1) ordainketak ezeztatzea, gainera osasungintzako sistemako giza errekurtoak indartzearekin batera.

Gobernuak Memorandumaren aurretik zegoen gutxieneko soldata berrezartzeko asmoa ere iragarri zuen (751 eurokoa egungo 586en aurrean) eta hamahirugarren paga sartzeari 700 euro baino gutxiagoko



pentsioetan. Bestetik, “legez kanpo” kanporatuak izan diren funtzionarioek edo lan mugikortasuneko sisteman deritzonan daudenek beren lanpostuak berreskuratzea ere iragarri zuen. Neurri honek 10.000 funtzionario ingururi eragingo lieke, besteak beste, Finantza Ministerioko garbitzaileei eta eskoletako bedelei. Era berean, langile mugimendu greziarraren borroka sinbolo izan den ERT (Irrati Telebista Publikoa) berriz irekitzea planteatu zuen, kalera bota zituzten 2.600 langileak berriro kontratatuz. Hitzarmen kolektiboak berreskuratzea eta kalera-tze kolektiboak baimentzen dituen legea indargabetzea ere iragarri zituen.

Hasieratik, Europako burgesiak haserrez erreakzionatu zuen iragarpen hauen aurka. Syrizaren garaipena jakin bezain laster hasi ziren Greziak bere konpromisoak betetzeko betebeharren inguruko ohararazpenak, zorraren ordainketarekin, murrizketekin eta austeritatearekin jarraitu behar zuela eskatuz. Ministroen Kontseiluko lehen bileran Tsiprasek eginiko diskurtsoaren ondoren, Atenaseko Burtsa %9,4 erori zen, Greziako lehen lau bankuak beren burtsako balioaren laurdena galdu zuten eta arrisku sariak 1.026 oinarritzko puntu hartu zituen. Gauza bera esan daiteke burgesia greziarraren erantzunagatik. Kapital ihesa, azken bost urte hauetan 300.000 milioi euro baino gehiagokoa izan da, eta hauteskundearen ondoren handiago egin da. Joan den abenduan 3.000 milioi euro erretiratu ziren Greziako bankuetatik, baina urtarrilean zifra 11.000 milioikoa izatera iritsi zen. Azken bi hilabete hauetan funts bankario guztia- ren %8,5a aterata da. Bloombergen arabera, 2012ko maiatzean herrialdeak jasan zuena baino handiagoa izan zen kapitalen irteera urtarrilaren 19 eta 23 artean.

Merkel, Hollande, Cameron eta beraien atzetik Europako kapital finantzio handiak, gogor presiona-



tu zuten gobernu berria. Syrizak iragarritako neurriekin beldurtuta zeuden. Ondo zekiten, bete ezkeroko golpe gogorra izango zela beren estrategiarako, eta oso kontziente ziren politika honek zituen inplikazioez eta beste herrialdeetan eduki zezaketen eragin kutsakorraz. Tsiprasen gobernuari eginiko kontzesio txikienak Greziako klase arteko borroka animatuko luke, eta Europar bide berari ekiteko seinale bezala ulertuko litzateke. Horregatik saiatu dira Syriza zanpatzen, bere interesen aurrean makurrazten eta PASOKen bide beretik arrastaka eramaten.

Zoritxarrez, Syrizaren eta Europako Batasunaren arteko lehen akordioaren ondorioz, Alexis Tsiprasen gobernuak atzera bota behar izan ditu, momentuz behintzat, urtarrilaren 28an egindako iragarpenak. Beste behin, agerian geratzen da gobernura iristen den edozein alderdi ezkertiarrek bi aukera posible bakarrik dituela: kapitalistekin negoziatu, kapitalistekin “kolaboratu”, gauzek oinarrian lehen bezala jarraitzeko, edo kapitalisten aurkako iraultza antolatu, kapitalistak desjabetu, hau da, sozialismoaren alde borrokatu. Horregatik, beharrezkoa da Syrizak iragarri zituen neurriak martxan jartzea, Europako eta Greziako kapitalisten mehatxuen aurrean ez

men egitea eta sozialismoaren aldeko borroka antolatzea Greziako langileen eta zapalduen mobilizazioan oinarrituta.

Syrizaren garaipena herritarren mobilizazio masibo baten testuinguruan gertatu da, eta honek gogor presionatuko du gobernuak atzera pausorik ez emateko. Syrizaren aldeko batek hauteskundeak baino egun batzuk lehenago esan zuen bezala: “25eko igande honetan irabazten duenean ospatu egingo dut, baina 26tik aurrera nola mobilizatuko garen pentsatzen hasi beharko dugu, desengainatu ez gaitzaten eskatzeko”. Burgesia oso kontziente da Syrizaren garaipenaren atzean aldaketa sozial sakon baten itxaropena dagoela.

EZKERRAREN GEHIENGO ABSOLUTUA KALEAN ETA PARLAMENTUAN. ESKUINA GOBERNUTIK KANPORA!

Samaras lehendakari ohiaren eskuin burgesak, Demokrazia Berriak (ND), porrot argia jasan zuen U25ean: Syrizak baino milioi erdi bozka gutxiago eskuratu zituen (9 puntu azpitik), eta 2012an lortu zituen %29,66tik %27,81ra (1.718.815 bozka) eta 76 diputatu izatera pasa zen, hau da, 106.000 bozka baino gehiago galdu zituen. Eskuin greziarrak erabilitako beldurraren,



katastrofismoaren eta txantajearen diskurtsoak, Europako burgesiak gogo handiz sostengatu zutenak, ezin izan zuen herri greziarraren, langileen eta gazterien erabaki irmoarekin amaitu, ezin izan zuen krisi kapitalistak azkeneko sei urteetan ekarri dituen ondorio izugarrien aurka behin eta berriz borrokatzeko agertu duen borondatea itzali.

Hauteskunde greziarren beste puntu garrantzitsu bat, sozialdemokrazia ofizialaren gainbehera politikoa izan zen. Arlo sozialean atzerakoiak ziren neurriak baldintzarik gabe babestu izanak eta gobernuan eskuinarekin izan zuen lankidetzak PASOK hondoratu du: 2009an hiru milioi boto baino gehiago (%44a) eta gehiengo absolutua izatetik, 289.428 bozka (%4.68) eta 13 aulki izatera pasatu da, 466.000 bozka baino gehiago galduz eta parlamentu greziarreko azkenetarikoa izatera pasatuz.

Egunsenti Urrekarako neonaziek berriz, atzera egin zuten 2012ko hauteskundeekin alderatuz gero, botoen %6,92 izatetik %6,28ra pasatuz (288.477 denera, 2012an baino 37.500 gutxiago) eta 17 diputatu eskuratuz. Baina hiru garren indar politiko gisa mantentzen da eta hau abisu argia da

Greziako gazteentzat eta langile klasearentzat.

Urtebete baino gutxiago duen To Potami “zentroko” alderdi berriak botoen %6,05 eta 17 eserleku lortu zituen. Greziako Alderdi Komunistak (KKE) %5,4 eta 15 eserleku, 2012an lortutako emaitzak baino puntu bat eta 60.000 bozka gehiago lortuz. 2012an eskuindar nazionalisten eszizio baten ondorioz sortutako Greziar Independenteek (ANEL) botoen %4,75 eta 13 eserleku lortu zituen, 2012an lortutakoak baino 169.000 gutxiago. Eta azkenik, Yorgos Papandreu lehen ministro sozialdemokrata ohiak eta bere Demokrata Sozialisten Mugimenduak, botoen %2,4 bakarrik lortu zuten parlamentutik kanpo geratuz.

Emaitzek errealitate eztabaia daezina agertu zuten: indarren arteko erlazioa erabat ezkerraren alde zegoen. 2012tik babesa handitzen zuten alderdi bakarrak Syriza eta KKE ziren. Biak batera botoen %42a hartzera iritsi ziren, 2012an %31 baino zertxobait gehiago zutenean. Bi alderdietako talde parlamentarioek 164 diputatuz osatutako gehiengo absolutua daukate, eta eskuina bere osotasunean (ND, AD, ANEL) %44etik %38,8ra pasa da.

Emaitzek soilik ezkerrekoa den gobernu bat eratzeke aurrera egitea baimentzen zuten noski. Syriak eta Tsiprasek dei argi eta garbi bat egin ziezaioketen KKEko oinarritari eta zuzendaritzari gehiengoaren onurarako programa batekin ezkerreko gobernu bat osatzeko. Egia da oztopoak zeudela eta daudela horrelako aukera bat gauzatu zedin KKEko zuzendaritzak Syrizarekin duen jarrera guztiz sektarioa dela eta, modu oker batean alderdi burges eta langileen aurkakotzat hartzen baitu. Egia da KKEko zuzendaritzak dinamika sektario bat elikatzen duela, leninismotik ezin urrunago dagoena; baina hori ez da aitzakia Tsiprasek proposamen argi eta indartsu bat ez planteatzeko.

Mota honetako akordio baten alde apustu indartsua egin beharrean, Tsiprasek Greziar Independenteetan (ANEL) babesa bilatzera jo zuen gobernu osatzeko. KKEren sektarismoa eta fronte bakarraren aurka duen jarrera politika kaltegarria badira, Syriak eskuinarekin aliantzak egitea ere ondorio oso larriak dituen akats bat da. Syriak honela azaltzen zuen ANELen aurrean zuen posizioa 2012an: “Ez dago inolako aukerarik Panos Kamenosekin (ANEL alderdiko buruzagia) koalizio gobernu bat osatzeko. Eskuinaren espazioari dagokio. Panos Kamenosen ibilbideak eta posizioek Demokrazia Berritik eskuinera kokatzen dute. Panos Kamenosen botoaren menpe legokeen ezkerreko gobernu antimemorandum batek ezingo luke iraun”. Hori zioen Syriako zuzendaritzan dagoen D. Papadimulis eurodiputatu eta Euro-parlamentuko presidente ordeak.

Ezkerrerako bira sozial ikargarri hau eta Syriak zuen autoritate handia ikusita, ANELek Salonikako Programa onartzen zuela esan zuen, baina maniobra taktiko bat besterik ez zen. Gobernuan sartzeko alderdi honen helburu bakarra burgesia greziarraren eta bere sistemaren interesak defen-



datzea eta Syrizaren neurriak oztopatzea da. ANEL alderdi chauvinista bat da, prokapitalista (ageriko loturak dauzka armadore handiekin) eta Estatuko sektore atzerakoienekin estuki loturik dago. Egunsenti Urrekarak duen posizioa berdina du emigrazioarekiko. Horregatik izan zen hain harrigarria Tsiprasek Defentsako Ministerioa Panos Kamenos ANELeko liderrari uztea (merkatu ontziteriako ministro izan zen Demokrazia Berriko Gobernuan 2007 eta 2009 artean), Grezian hain beharrezkoa denean faxistez betetako armada eta estatu aparatua depuratzea. Hemengo goi-karguek lotura handiak dituzte Egunsenti Urrekarako neonaziekin.

Txileko Unidad Popularraren garaipenaren ondoren, Allende presidenteak Augusto Pinochet izendatu zuen Txileko Armadaren Estatu Goreneko buru. Berehala goi kargu militar atzerakoiak kanporatu beharrean, horretarako gehiengo sozialaren babesaz baliatuaz, soldadu eta subofiziale arrerakoiekin, militarrek bere politikara erakartzen saiatu zen Allende. Emaizta sobera ezaguna da. Pinochet armak hartuta Allenderen gobernuaren aurka altxatu zen eta diktadura odoltsu baten buru izan zen.

ANELeko atzerakoi hauek Troiako zaldia dira Syrizaren gobernuan. Beharrezkoa denean, klase dominatzaile greziarrak, ANEL

erabiliko du gobernuaren beraren eta langile mugimenduaren aurka, bosgarren zutabe suntsitzaile gisa. Historiako ikasgaietatik ikasi beharra dago: klaseko politika independente bat mantendu behar da eta akats larri hau berehala zuzendu.

KAPITALISMOAREKIN APURTU GIZARTEA ERALDATZEKO

Hala ere, Syrizaren gobernuak aurrrera pauso izugarria da, baina lehen pauso bat baino ez da eraldaketa sozial sakon baten bidean. Greziako kapitalistek beren botere iturri nagusiak edukitzen jarraitzen dute: sektore finantzieroaren eta ekoizpen baliabide handien jabetza eta estatu aparatuen kontrola. Allenderen gobernuarekin gertatu zen bezala Txilen edo Chavezekin Venezuelan, burgesiak bere botere ekonomiko guztia eta estatu aparatua erabiliko du gobernu sabotatzeko, ezegonkortzeko eta eraisteko.

Erreakzioaren ofentsiba saihestezin horri aurre egiteko modu bakarra alternatiba sozialista argi bat defendatzea da. Grezian jokoa dagoena da ea nork kontrolatzen duen gizartea: kapitalistek edo langileek. Sabotajearen aurrean, inbertsoreen grebaren aurrean, kapitalen ihesaren aurrean, beharrezkoa da ekonomiako funtsezko sektore guztiak nazionalizatzea

eta hauek langileen kontrolpe demokratikoan jartzea da. Europatik finantzieroki itotzeko mehatxuen aurrean, Syrizak langile klase europarraren elkartasunasunari egin behar dio dei, eta aldi berean, Europa osoko alderdi ezkertiarrek eta sindikatuek gobernu greziarra aktiboki babestu behar dute. Eta kapitalisten mehatxuen aurrean Europako Federazio Sozialistaren alternatiba altxatu behar da, bai Grezian eta baita Europa osoan.

Syriaren garaipenak inflexio puntu bat adierazten du eta pisu historikoa duten hainbat prozesuren garapena: krisi kapitalistaren sakontasuna eta bertatik irteteko perspektiba falta; instituzio burgesen eta burgesiaren ordezkari politikoaren sinesgarritasun galtze sakona; sektore finantzieroaren harropuzkeria, abarizia eta parasitismoa; sozialdemokraziaren porrota eta, dudarik gabe faktorerik garrantzitsuena, Greziako gazterien, langile klasearen eta pobreturiko erdi-mailako geruza zabalen borrokatzeko eta eraldaketarako borondatea.

Greziako egoera politikoan daudden elementu iraultzaile guztiak maila gorenago batera igo litezke. Murrizketen politikaren aurka egiteko prestutasuna azaldu duen gobernu baten aurkako erreakzioaren kolpeak are gehiago erradikalizatu dezakete langile mugimendua. Honela, klase arteko borrokan garai berri bat ireki liteke, non kapitalismoa garaitzea helburuen lehen tokian jarri daitekeen. Greziako zapalduak erresistentzia indartsu bat gauzatuko dute beren garaipena suntsitu nahi dutenen aurka. Esperientzia historikoak erakusten du gezurrezko ilusioak saltzen dituztenen buruetan bakarrik dela posible kapitalisten interesak langileenekin elkartzea. Grezia etapa berri batean sartu da: edo beraiek, kapitalistak eta bankariak beren austeritate hiltzailearekin; edo gu, herria eta langileak gizartea sozialismorantz eraldatuz.

Karta Soziala eta martxoaren 14ko mobilizazioak

Eskubide Sozialen Aldeko Kartak Batzar Nazionalen bi manifestazio deitu zituen martxoaren 14rako, bata Bilbon, bestea Iruñean. Bietako leloa: "Aldaketa soziala orain! Tenemos alternativa!". Mobilizazio hauek Euskal Herriko eskubide sozialen karta gizarteratze, interpelatze eta mobilizatze fasea abiatzeko apustuari erantzuten diote.

J. L. CARIÑANOS
Gasteizko Langabetuen Batzarra

Langileok erantzun sendo eta garbia eman behar diegu kalean kapitalaren mesedetara dauden gobernuen eraso gero eta larriagoei aurre egiteko; eta honetarako modurik hobere-na gizartea eraldatzeko programa iraultzaile bat eskura izatea da. Hori dela eta, ehunka kolektibo eta sindikatuk Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta egin izana aurrera pauso oso garrantzitsua da.

Sarreran, egun "krisi sistematikoko eta globala bizi" dugula azpimarratzen du. Era berean, aipatzen du kapitala gero eta esku gutxiagotan pilatzen dela, eta demokrazia engainu bilakatuz eta gehiengo sozialari inposatutako diktaduraren bidez, kapital finantzieroa botere politikoarengan duen domeinuaz ere hitz egiten du. Egia esanda, gero eta garbiago dago gizartearen gehiengoarentzat langileoi eragiten duten erabaki politiko eta ekonomikoak hartzen dituztenak banku eta multinazional handien administrazio kontseiluan daudenak eta hauen ordezkari politikoak direla. Halaber, testuak bankarren mesedetan eta finantza zorra

ordaintzeko aurrera eraman den osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta bestelako zerbitzu publikoen pribatizazio prozesua azaltzen du.

Kartak jasotzen dituen eskubide sozialen eskaerei dagokienez, langile mugimenduaren oinarriko aldarrikapen historikoak biltzen dira: hezkuntza publikoa, euskalduna, laikoa eta doakoa; osasun publikoa, doakoa eta unibertsala; etxebizitza eskubidea guztiontzat diru-sarreraren %15 gaindituko ez duen alokairu sozialerako etxebizitzaren parke publiko bat sortuz; kalitatezko lan duina izateko eskubidea; lan eguna murriztea soldata jaitsi gabe; laguntza muga-

gabea langabeziak iraun bitartean; zerbitzu sozialen sare publiko sortzea behar gehien dutenei bizi duina bermatzeko.

Oinarriko eskubide hauek guztiak sistematikoki erasotzen ari da klase agintaria herrialde guztietan. Kapitalisten interesek aldarrikapen hauekin guztiekin tal-ka egiten dute. Krisitik ateratzeko eta beren irabaziak handitzeko, Europako langile mugimenduak Bigarren Mundu Gerraz geroztik lortu dituen konkista guztiak suntsitu nahi ditu burgesiak. Euskal Herriko egoera ez da bestelakoa. EAJ eta UPN Estatu espainiarreko edo Europar Batasuneko murrizketa eta langile klasearen aurkako eraso berberak ari dira aurrera eramaten. Hau-ze azpimarratzen du Kartak: "Euskal Herriko gobernu neolibera-lerak beren esparruan politika horiexek ezarri dituzte, eta estatu espainiar zein frantsesaren eta Europar Batasun guztiaren estrategia berean parte hartzen dute, urte askotako borroka ani-



tzetan erdietsitako lorpen sozialak deuseztatzeko xedez.” Egoera honen aurrean, beharrezkoa da euskal burgesiaren independentea den politika bat defendatzea. EAJrekin fronte nazionala sortzearen aldeko politika alde batera utzi behar da. Aliantzen politika hau oso kaltegarria da euskal langile klasearentzat, borroka soziala euskal burgesiaren hitzartutako erabakitzeak eskubidearen menpe jartzen baitu. Ezinezkoa da Karta Sozialeko eskubideak defendatzea, Euskal Herriaren eskubide demokratikoak barne, eta EAJrekin akordioetara iristea. Kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritza eskuineko politika egiten ari dela: lanorduak igo, funtzionario kopurua murriztu, murrizketak osasunean, hezkuntzan, Lan Erreforma babes-
tu, etab.

Langileen bizi baldintzen suntsiketa erakunde burgesetatik egiten da. Kartan hainbat bider esaten da erakundeek eskubide sozialak bermatu behar dituztela: “Euskal Herriari, beste edozein herri bezala, bere eredu ekonomiko, sozial, politiko eta instituzional propioaren gainean erabakitzeak eskubidea dagokio (...). Instituziook izan behar duzue parte hartze sozial aktiboarekin, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen pertsona ororentzat karta honetan jasotzen diren oinarriko eskubide sozialen bermatzaileak.” Baina, erakunde burgesek ezin dezakete bermatu eskubide sozial hauek betetzea; izan ere, egitura sozio-politiko burgesa klase agintariaren interesak defendatzeko baitago. Ezkerra gobernura iritsita ere, burgesiak hamaika bide ditu beren interesen kalterako diren neurriei aurre egiteko.

Nazioarteko kapitalak bloke bezala jokatzeko du bere interesak arriskuan badaude. Beraz, langileok ere elkartu egin behar dugu



zapalkuntzaren eta desberdintasunen aurkako borrokan. Zenbat eta zabalagoa eta sendoagoa izan batasuna, orduan eta handiagoa izango da gizartea aldatzeko gaitasuna. Soilik langile klasearen borroka kontziente eta antolatua bermatu ditzake behin betiko oinarriko eskubide sozial eta demokratikoak. Kartak ere ideia hau defendatzen du ondoko hitzetan: “Egoera makur honen aurrean krisitik irteteko hartzen diren neurriak kapitalismoaren logikatik hartzen badira, aldizko partxe bat besterik ez direla izango uste osoa dugu.” Aurrerago hala dio: “Jendarte eta bizitzaren zaintza eredu berri bat behar dugu: jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak kokatu behar dira, eta lehentasuna eman behar zaio jendartearen interes kolektiboari, ez interes partikularrei eta merkatuaren logikari. Hots, finean egungo metatze kapitalista beste produkzio, banaketa, kontsumo eta zaintza eredu bat bihurtu behar dugu, gure beharrianak asetzeko, (...)”.

Kartak modu abstraktu batean proposatzen duen gizarte eredu ezin daiteke sozialismoa besterik izan: langile klaseak, hots gizartearen gehiengoak, gero eta esku gutxiagotan dauden ekoizpen baliabideak desjabetu behar

ditu, langileen kontrolpe demokratikopean gizartearen behar sozialak asetzeko.

Kartan garatutako programa praktikan jartzeko, beharrezkoa da langile klasea bere osotasunean mobilizatzea. Eskubideen aldeko mobilizazio sozial erraldoia da berme bakarra. Hori dela eta, beharrezkoa da Euskal Herri osoan lan gatazkak eta aldarrikapenak kalera atera eta elkartzeko. Ezinbestekoa da lan gatazkak konpontzeko bide judizialaren estrategia eta enpresaz enpresako borrokan estrategia baztertzea. Iazko abenduaren 20an, Gasteizen enpleguaren alde eta lan erreformaren aurka egindako manifestazio jendetsua izan zen, eta gatazkan dauden hainbat enpresatako langileek parte hartu zuten: Laminaciones Arregui, ECN, Condesa, Arcelor, Wec, Candy, Castmetal, Alestis, EITB, besteak beste. Mobilizazio honek erakutsi zuen langileek elkartzeko borrokatzeko borondatea badutela beren erakunde sindikalek horretarako aukera ematen badiete. Martxoaren 14ko Karta Sozialaren aldeko deialdia gatazka hauek elkartzeko bidean pauso garrantzitsua izan liteke, langile klasearen borroka goragoko maila batera igoz eta benetako programa iraultzea eskainiz.

EAJ: ate birakariak eta ustelkeria kasuak

Botere ekonomikoa eta botere politikoa txanpon berberaren bi aurpegi dira. Leninek El imperialismo, fase superior del capitalismo liburuan azaltzen zuen moduan, Estatu kapitalista eta hau ordezkatzeko duten gobernuak monopolio ekonomiko handien zerbitzura daude. Jeidens ekonomialari alemaniarren hitzak erabiltzen ditu Leninek liburuan: “la unión personal de los bancos y la industria se completa con la unión personal de ambos con el gobierno. Los puestos en los consejos de administración son confiados voluntariamente a personalidades de renombre así como a algunos funcionarios del Estado, los cuales pueden proporcionar no pocas facilidades en las relaciones con las autoridades”.

IBON ARTOLA

Ikusi besterik ez dago non bukatzen duten EAJko agintari politiko askok. Estatu aparatu espainiarren zerbitzura lan egin ondoren, enpresa pribatu handietako zuzendaritza postuetara igarotzen dira EAJ eta monopolio handien arteko fusioa begi bistan utziz. Zerreenda luzea da; hauek dira adibide esanguratsuenetakoz batzuk:

- Josu Jon Imaz, EAJko Euskadi Buru Batzarreko lehendakari ohia eta Industriako kontseilari ohia. Orain Petronorreko presidentea, Repsoleko kontseilaria (Repsoleko “bigarren zenbakia” deitu diote) eta Orisol Corporación Energética-ko kontseilaria da.

- Juan Mari Atutxa, Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohia eta Barne Sailburua izandakoa Ertzaintzaren garai beltzenetakoa. Iberdrolako kontseilaria eta Bahia de Bizkaia Gaseko kontseilari ohia da. Itxaso Atutxa, Bizkai Buru Batzarreko lehendakariaren aita da.

- Idoia Zenarruzabeitia, Juan Jose Ibarretxeren gobernuko Lehendakariorde ohia eta Ogasuneko sailburu ohia. Euskalteleko kontseilaria izan zen. Energiaren Batzorde Nazional espainiarreko kidea izan zen Zapateroren gobernuarekin eta Merkatuen eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionaleko kidea Rajoyren gobernuarekin.

- Javier Balza, Barne sailburu ohia. Iberdrolan idazkari lanak egiteaz gain Petronorren interesak defendatzen ditu. Uria y Menendez bufetearen bazkidea eta Vital Kutxako kontseilari ohia da.



PP ETA CIUN BEZALA, EAJN ERE USTELKERIA KASUAK

EAJren ustelkeria kasuak ez dira atzean geratzen. Alderdiko zuzendaritza ez dago zikinkeria guzti horretatik salbu. EAJko postu gorenetan ohikoa izan den Juan Cruz Nievesek, Jose Luis Bilbaoren Bizkaiko Diputazioko goi kargua eta Bizkaiko Garraio Partzuergoko zuzendaria izandakoak, 210.000 euro jaso zituen diru publikotik inolako lanik egin gabe Ibarzaharra elkarre publikoko “karguari” esker. 2012ko abuztuan 65 urte bete zituenean kargua utzi zezakeen erretiroa hartuz, baina postuan jarraitu zuen 59.000 euroko soldata jasotzen jarraitzeko.

Andoni Ortuzar EAJko lehendakariaren aholkulari ohia da hurrengoa: Iñigo Camino. EAJren Deia egunkariako zuzendaria eta Radio Euskadiko zuzendaria izan zen. EAJren Think Gaur Euskadi 2020 hausnarketa foro koordinatzailea izan zen. Orain, EAJren Bizkaiko Diputazioko aholkularia da. Honek ere, 2008ko apiriletik 2009ko irailera bitartean Ibarzaharra elkarteko zuzendaritzan “egoteagatik” 80.000 euro kobratu zituen bere lanpostura inoiz joan gabe.

Azkenaldian, EAJko kide eta lagunei buruzko kasuekin betetzen ari dira epaitegiak, Euskal Herriko komunikabide asko hau gordetzen saiatzen diren arren. Autopisten auzia da horietako bat. AP-1 autopista kudeatzen duen enpresarekin EAJko Xabier Aguirrek sinatutako akordioak 3 milioi euroko gailak izan dezake. Epaiketetan dago gaia “prebikazio delitua eta diru publikoaren erabiltze bidegabearen” salaketapean.



Gipuzkoan, 2002an Diputazioko gobernuan zegoenean EAJk Bidegi Gipuzkoako Azpiegiturak SA enpresa publikoa sortu zuen AP-8 autopista kudeatzeko eta eraikuntza berriak egiteko. EHBilduren Gipuzkoako Diputazioak kereila kriminala aurkeztu du elkarte publiko honetako hiru arduradun ohien aurka. Egin diren azterketen arabera, exekutatu ez ziren 3,4 milioi ordaindu ziren eta diru publikoaren erabiltze bidegabea eta dokumentuen faltsifikazioa inputatzen zaizkie. 2011n, Bidegik 900 milioi euroko zorra zuen dagoeneko exekutatuta zeuden eta sarritan %60ko gainkostua suposatu zuten lanengatik.

Leioako Pinosolo polikiroldegian EAJk egin duen kudeaketa da beste kasu esanguratsua. Hau ere epaitegietan dago. Diru publikoko 1,6 milioi euroren galera egon da eta enpresa konkretu bati mesede egiteko lehiaketak manipulatu ziren kasu honetan. Karrantza, Muskiz eta Bakioko Minda egitasmoak ere EAJren ustelkeria maila oso goian utzi du. Diru publikoko 10 milioi euro desagertu dira!! Eta proiektua ezerezean gelditu da!!

EAJko hainbat alkate ere saltsan sartuta daude. Bizkaiko fiskaltza Aitor Apraiz (EAJ) Bakioko alkatea eta lau enpresa ikertzen hasi zen 2014 hasieran. Delituak honakoak: erabiltze bidegabea, iruzurra, influentzia trafikoa eta prezioen alterazioa lehiaketa eta enkante publikoetan. Ikerketak Txakoligune txakolin museoan zentra-

tu ziren. Milioi erdia baino gehiago ordaindu zen bukatu gabeko lan batengatik eta 100.000 euroko gainkostua suposatu zuen gainera.

Barakaldoko epaitegia, berriz, Muskizko udaletxea ikertzen ari da 200.000 euroko kalteagatik: arkitecto bati 17.100 euroko proiektua kontratatu zitzaion plan urbanistikoa ez betetzeagatik exekutatu ezin zen arren; enpresa bati 17.870 euro esleitu zitzaizkion, baina ondoren 21.200era igo zen eta, azkenean, 47.700 euroko ordainketak egin zitzaizkion; beste enpresa bati herriko argiztapena kontratatu zitzaion 23.000 euroko balioarekin, baina ondoren 27.400era iritsi zen, azkenean beste 136.000 euro jasoz.

PPko kasuetan azaldu den moduan, zabaldua daude gainsoldatak EAJko ardura postuetan? Juan Antonio Ollaguenaga EAJko Orozkoko alkate ohiak 50.000 euroko gainsoldata kobratu zuela agerian geratu da. Hiru urte eta erdian 50.000 euro baino gehiago jaso zuen udaleko elkarte publiko batek alkatearen soldata jasotzen zuen bitartean. Gainsoldatak, salbuespena edo ohikoa EAJn?

Jose Luis Bilbao EAJko Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren hitzek erakutsi zuten alderdi honen zainetan dagoen ustelkeria bere kargua utziko zuela adierazi zuenean: "Pueden estar tranquilos porque nunca escribiré mis memorias, memorias en las que podrían aparecer personas con sus grandezas y sus miserias. Desgraciadamente habría muchas miserias, los que decían una cosa en

privado y la contraria en público, los que mentían sabiendo que mentían, los que sabían que nosotros teníamos información que luego no podíamos utilizar y jugaban con ello, los que decían una cosa y la contraria sin pestañear, los que hacían pagos con fajos de billetes sin demostrar su origen, los que tenían grandes sumas de dinero en paraísos fiscales y cuyos nombres no salen a la luz. Saben perfectamente quiénes son, les digo que pueden estar tranquilos, al menos por lo que a mi se refiere, porque yo nunca escribiré mis memorias».

KAPITALISMOA BERRERAIKI DAITEKE "DEMOKRATIKOKI"?

Marx eta Engelsek Manifestu Komunistan esan zuten kapitalismo-pekko gobernuak "klase burges osoaren negozio komunak administrazten dituen junta" direla. Banku eta monopolio handiek harreman oso estuak dituzte gobernuarekin eta erabat lotuta daude babesten dituen Estatuarekin. EAJko ustelkeria kasuek ere errealtate hau agerian uzten dute, burgesia kontrakoa azaltzen saiatzen den arren.

Kapital finantzarioaren diktaduraren eta honen botere politikoaren aurka borrokatzeko modua ez da "berreraikuntza demokratikoa" delakoa. Bidea beste bat da: borroka egitea modu kontziente eta antolatuta batean monopolio handien boterearekin amaitzeko, banka eta multinazionalak desjabetuz eta ekonomiako oinarritzko palankak herritarren gehiengoaren kontrolpe demokratikoan jarritz. Honekin batera beharrezkoa da demokrazia zuzena, demokrazia sozialista: ordezkari politiko guztiek aukeragarriak eta edozein unetan kengarriak izan behar dute, eta ez dute langile kualifikatu batek baino soldata handiagoa jaso behar. Izate sozialak kontzientzia determinatzen du, eta ezin da langile klasea ordezkatu eta defendatu, burges bat bezala bizitzen edo burgesa izaten.

Ahal dugu-Podemos:

Zein da gauzak benetan aldatzeko bidea?

Pasa den urteko maiatzeko Europako hauteskundeetan emaitza onak lortu ondoren, Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko eskenatoki politikoa astintzeko hautagai bihurtu da Ahal dugu-Podemos. Estatu mailan, azken urteetako gertakizun politiko esanguratsuenetakoa izan da. Horko agintarietako batzuek bestelakorik esan arren, ezkerreko milioika gazte eta langileren esperantza bihurtu da, PP gobernutik botatzeko, aurten izango diren Estatu espainiarreko hauteskundeak irabazteko eta orain arteko erasoak atzera botatzeko aukera bezala ikusten baitute.

Estitxu Zulaika

Politologo" batzuen arabera Ahal dugu-Podemosen "arrakasta", Pablo Iglesias eta bere ingurukoen "hizkera berria" izan da. Ikuspegi honek, ordea, oinarritzko gauzak ezkutatzen ditu. Ahal dugu-Podemosen arrakasta 2007an hasitako krisi ekonomikoa-ri, gorantz joan den klaseko borrokari eta milioika gazte eta langileren kontzientzia politikoaren garapenari lotuta dago.

Hainbat komunikabide gordetzen saiatu diren arren, baita Euskal Herrikoak ere, azken bost urteetan mobilizazio historikoak ikusi dira Estatu espainiarrean: M15 mugimendua, Duintasun Martxak, Marea herritarrak, meatzarien borroka, greba orokorrak, lan gatazkak eta ikasle mobilizazio erraldoiak. Ezkerreranzko erradikalizazio politikoa agerian geratu da.

Bestetik, PSOE bizitzen ari den krisia hasi besterik ez da egin. Alderdi honen etorkizuna Greziako PASOKenaren oso antzekoa izan daiteke. Sozialdemokraziaren gainbeherarekin eta herritarren zati esanguratsu baten

erradikalizazioarekin, IUk aukera zuen gizartearen haserrea bereganatzeko baina ez da gai izan. Iraganeko hipoteka asko ditu IUk: herdoilduta dagoen aparatatu politikoa eta politika instituzional erreformista. Azken urteetan esaterako, PSOERI Andaluzian eta PPri Extremaduran gobernua osatzeko emandako babesak erakusten du IUren zuzendaritzaren politika kaxkarra. IUren Ahultasun hauek parez pare ireki diote atea Ahal dugu-Podemosi.

Euskal Herrian egoera desberdina izan da ezker abertzaleak duen oinarri sozial garrantzitsuagatik. Hala ere, inkesten arabera, Ahal dugu-Podemosek emaitza oso onak lor ditzake Euskal Herrian ere.

Burgesiak azkar ulertu du Pablo Iglesiasen alderdiak sortzen

duen arriskua, edo hobeto esanda, alderdi honek milioika herritarrentzat islatzen duen aldaketa aukera eta borrokarako grina. Horregatik, burgesiak lanak banatzen ditu egoerari aurre egiteko. Ahal dugu-Podemosen aurkako kanpainak etengabea da: ETA, Venezuela, komunismoa... Bestetik, iraganean PSOERekin egin zuten bezala, Pablo Iglesias eta konpainiari eskua luzatzen diete komunikabideetan parte hartzea eskainiz eta joko arauak errespetatzea eskatzen dieten bilera pribatuak antolatuz.

EZ ESKUINDARRAK, EZ EZKERTIARRAK?

Aldaketa sakona bilatzen duten masentzat garrantzitsuena ez da programa politikoetako letra txikia. Ahal dugu-Podemos bandera garbi bat bezala ikusi dute milioika herritarrek, eta "kastaren" eta ustelkeriaren aurka egindako salaketek, kapitalismoaren kontrako kritikek, sektore estrategikoak nazionalizatzearen ideiak eta herritarren parte hartzeari eta kontrol demokratikoari buruzko diskurtsoak erakarri egin ditu.

Honek ez ditu ezkutatzen, ordea, Ahal dugu-Podemoseko agintariek izan dituzten kontraesanak.

Eskuindarrak eta ezkertiarak ez direnaren diskurtsoa adibidez, demagogia oportunistak besterik ez da. Hau hala balitz, nola uler daiteke Pablo Iglesiasen taldea Ezker Bateratu Europarraren talde parlamentarioan egotea edo Greziako erreferentzia Syriza (Ezkerreko Fronte bezala aurkezten dena) izatea? Alderdi berri honen militanteen





eta boto emaleen gehiengo handia ezkertiarra da.

KAPITALISMOA DEMOKRATIZATU?

Denborak aurrera egin ahala beren programak izan duen “moderazioa” argudiatzeko, Ahal dugu-Podemosko arduradunek “responsabilidades de Estado” delakoa erabili dute. Honakoak esan zituen Pablo Iglesiasek elkarrizketa batzuetan: “Un gobierno no puede decir ‘mire usted, voy a abolir la economía de mercado en mi país’. No se puede, ya me gustaría a mí” (...) “Quien piense que por ganar las elecciones se puede cambiar el capitalismo es un ingenuo” (...) “Hacer un programa para las elecciones europeas cuando eres una fuerza sin representación parlamentaria no es lo mismo que hacer un programa cuando asumes que vas a tener que hacer un gabinete de ministros y gobernar” (...) “Una cosa pueden ser tus valores o el mejor de los mundos imaginables y otra es una realidad enormemente compleja en el que las cosas que se pueden hacer desde un Gobierno son más que limitadas y eso lo prueban todas las experiencias de cambio, que se han dado en la historia” (...) “Si nosotros pensamos que por ganar unas elecciones vamos a poder construir un mundo completamente distinto estaríamos locos” (...) “Las condiciones de posibilidad actuales hacen que a lo máximo a lo que se pueda aspirar es a una suer-

te de papel redistributivo por parte del Estado, a través de una suerte de reformas, todo lo más que podemos llamar socializantes, que fueran en la dirección de la protección de los derechos sociales y ese es el marco. Quien quiera pensar en arcadias en las que se haya abolido la explotación del hombre por el hombre, bueno... eso está bonito para discutir en las facultades de filosofía”. Aberatsei buruz, berriz, honelako gauzak esan ditu alderdi buruak: “Hay que explicarles que a veces hay que hacer sacrificios y hay que apretarse el cinturón por el bien de la nación”.

Estatu espainiarreko hauteskundeak irabazteko gai ikusi denean hasi da esaten Pablo Iglesias honelako gauzak. Noiz eta hain justu ere programa erradikala izan denean milioika pertsona Ahal dugu-Podemosera erakarri dituen. Zer egin behar dute alderdiko buruek? Felipe Gonzalezen gobernuen bide berbera errepikatu? Formula berdinak errepikatu behar dira edo herritarren mobilizazioan eta parte hartzean oinarrituta sustraitik aldatu behar da gehiengoa miseriarra kondentatzen duen sistema?

Ahal dugu-Podemosko arduradunek ondorioak atera behar dituzte iraganetik, 70eko hamarkadako akatsetatik. Sozialismoaren alde ez bada borrokatzen, zeren alde borrokatzen da? Kapitalismoa hobe baten alde? Akordio sozial berri bat egin behar da burgesia espainiarrekin? Hau ez da politika egite-

ko modu berri bat. Oso aspaldikoa da. Erreformismoak behin eta berriro errepikatutakoa. Hain zuzen ere, bide hauxe hartu zen Trantsizio bezala ezagutzen dugun garaian. Eta zer gertatzen da autodeterminazio eskubidearekin? Ez da batere egokia alderdiko zuzendaritzak gai honekiko hitz eta diskurtso anbiguoak erabiltzea. Ahal dugu-Podemosen argi eta garbi defendatu beharko luke autodeterminazio eskubidea, bai, independentziari bai edo ez esateko eskubidea.

Krisiaren eta sozialdemokraziaren gainbeheraren ikasgai garrantzitsuenetakoa da kapitalismoaren eta sozialismoaren artean ez dagoela erdibiderik. Ez, ez dago. Burgesiaren eta langile klasearen, langabetuen, pentsionisten eta erdi mailako sektore pobretuen artean ez dago erdibiderik. Kapital finantzarioa eta monopolioak dira jaun eta jabe kapitalismoan. Ez dago beste kapitalismo posibleirik.

Gizartearen aldaketa lortzeko modu bakarra benetako politika sozialista aplikatzea da: botere finantzarioa (bankuak, aseguruak) eta ekonomiako sektore estrategikoak kontrolatzen dituzten enpresa talde handiak (elektrikak, telekomunikabideak, altzairua, zementua...) desjabetzea eta gizarteak sortzen duen aberastasun ikaragarria beharrak eta gabeziak asetzeko erabiltzea. Faxistez betetako gaur egungo estatu aparatua demokratikoki antolatutako herriak zuzenean kudeatutako bategatik ordezkatu, kapitalisten zerbitzura dauden elizako, ejertzitoko, poliziako eta burokrazia politikoko hierarkiari aurre eginez. Nazioen autodeterminazio eskubidearen defentsa eta preso politikoen amnistia. Gehiengoaren, zapalduen eta langileen zerbitzura egongo litzatekeen politika, neurri hauek guztiak aurrera eramateko masen parte hartze aktiboan eta mobilizazio sendoan oinarrituz. Honelako politikak, bidea irekiko lioke gizarte sozialistaren eraikuntzari eta kapitalismoak eragiten dituen izurrite guztien amaierari.

Errepresioa: PP eta PSOEk berriro ere, kodea gogortu dute

Parisen *Charlie Hebdo*ren aurkako atentatuaren ostean, eta Yihadismotik babesteko aitzakiarekin, PPK, PSOEren babesarekin, lege antiterrorista berri bat onartu du. Honen ondorioz, bizitza osorako espetxe zigorra berrezarriko da eta eskubide demokratikoak are eta gehiago murriztuko dira.

ARKAITZ APARICIO

Frankismo garaitik depuratu gabe dagoen estatu aparatua bidelagun duela, Europa guztiko zigor kode gogorrena du Espainiar Estatuak. Eurentzat hau nahikoa ez eta, PSOEko idazkari nagusi berriaren babesarekin, justizia unibertsala kentzeko eta bankari zor publikoa ordaintzea ziurtatzeko egin zuten Konstituzioaren erreformaren antzera, beste estatu itun bat sinatu dute ziztu bizian.

PPk eta PSOEk Madrilen sinatutako akordioak, eskubide demokratikoei erasotzen die beste behin ere. Zigor kodearen erreforma berri honek “terrorismoaz” kondenatutakoei beto bat ezartzen die, aisialdi edo denbora libreko ekin tzak burutzeko eta irakaskuntzan jarduteko, nahiz eta zigorra bete a izan.

Gogoan eduki behar dugu, 2013an Guardia Zibilak, UPNren babesarekin, Nafarroako 1500 irakasleei (denak D eredukoak) fitxategi ideologiko bat zabaldu ziela hauek ETArekin lotuaz.

Yihadismoaren aurkako itun berri honek terrorismo kontzeptuari berari ere beste adiera bat ematen dio gainera: “ondasun juridikoen aurkako edozein delitu

larri, ordena konstituzionala iraultzea edota Estatuaren instituzio politiko eta estruktura ekonomikoak deuseztatu eta desorekatzeko helburua badute” terrorismoa da orain; baita “botere publikoei zerbait egitera behartzea ere”; “bake publikoa larriki aldatzea”; “erakunde internazional baten funtzionamendua larriki desorekatzea”; “populazioari edo honen zati bati izu egoera bat sortaraztea”, etab. Hemen zerrendatutakoekin, edozein protesta sozial, ekintza terroristatzat har dezake poliziak.

Aipatzen ari garen itun honek beste klasusula bat ere badu, eta honen bidez, 6 eta 20 urte bitarte-

ko inhabilitazioa ezarri ahalko zaie “terrorismoarekin zerikusia izanagatik” kondenatutako irakasleei: “talde armatuko kide izatea”, “goraipatzea edo apologia egitea, baita biktimei mesprezua eta irain moduan ere”. Horrela, adibidez preso baten argazkia erakusteagatik kondenatu duten irakasle bat inhabilitatua gera daiteke.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN

Urtarrilaren 10ean, Bilbon, 80.000 pertsona baino gehiagok presoak Euskal Herriratzea aldarrikatzen zuten manifestaziotik bi egun besterik igaro ez zirenean, Guardia Zibilaren sarekada berri bat etorri zen. Atxilotutako abokatuei “ETAko kide izatea” egotzi izana eta manifestazioan bilduriko 90.000 euroak konfiskatzeak arrazoi bakarra du: preso-en eskubideen aldeko lana eragozte.





Presoen abokatuen aurkako sarekada hau salatzeko, Euskal Herriko hainbat hiri eta herrietan manifestazio ugari egin ziren; hauen artean garrantzitsuena Donostiako izan zen. Bertan 50.000 pertsona inguru elkartu ziren; eskubide demokratikoen defentsan emandako beste erantzun indartsu bat.

Atxiloketa hauek gertatu bitartean, Auzitegi Gorenak —bertako 9 magistratu PPren aldekoak dira eta 6 bestelakoak— ETAko kideei zigorrak pilatzeaz hitz egin zuen, nahiz eta 2014ko abenduaren 3az geroztik Europa mailako akordio baten arabera, Europar Batasuneko beste estaturen batean espetxeratuak izan direnei zigor urte horiek deskontatu behar zaizkiela esaten duen. Gauzak horrela, hainbat preso kaleratu zituzten, baina Etixeraten arabera, 56 pertsona berriz ere kartzelaratuak izango dira, nahiz eta Europako akordio horren arabera beren kondenak beteak dituzten. Dagoeneko hasi dira hauetako batzuk espetxeratzeko, Santiago Arrospide kasu,

zeinak nahiz eta 27 urteko kartzela zigorra betea duen, urtarrilaren 19an berriz atxilotu zuten 45 egun askatasunean igaro ondoren.

Hau guztia nahikoa ez eta, hor jarraitzen dute ezker abertzalearen aurkako makro-epaiketek. Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak Askapenaren aurkako ahozko entzueran bere kalifikazioak publiko egin ditu: fiskalak 6 urteko kartzela zigorra eskatzen du ETArekin harremana dutela egotzi baitie Askapenako 5 kideri, eta, honez gain, erakundea legez kanporatzea eta bertan behera uztea eskatzen du, baita Bilboko Askapeña konpartsa eta Herriak Aske eta Elkar Truke (azken hau bidezko merkataritzan zentratzen da) kolektiboentzat ere.

Beste behin ere, PP mendeku eta basakeria politikak aplikatzen eta oinarritzko eskubideak zapaltzen ari da, hala nola, dispertsioarekin jarraituz, gaixo dauden presoak ez askatuz eta beste hainbat salbuespen neurriekin jarraituz. Oinarritzko eskubide hauek lortzea

ezinbestekoa da gainerako eskubide demokratikoak eskuratu ahal izateko.

Presoen eskubideen defentsa, preso politikoen amnistia eta autodeterminazio eskubidea, sozialismoaren aldeko borrokari lotuak daude. Eskubide demokratikoen aldeko borroka eta eskubide sozialen aldekoa, borroka bakarra baita. Horregatik, aldarrikapen hauek uztartzea nahitaezkoa da. Hau da klaseko esplotazio eta zapalkuntza nazionalik gabeko mundu bat lortzeko bide bakarra.

Eta Euskal Herriko gehiengo zapaldua borroka honetara erakartzeko, beharrezkoa da politika benetan sozialista eta ezkerrekoa defendatzea, lana kentzen digutenak eskubide demokratikoak kentzen dizkiguten horiek dira eta. Beraz, sozialismoaren aldeko borroka, bankuen eta monopolioen nazionalizazioaren aldeko borroka, kapitalismoak ukatzen dizkigun eskubide demokratiko nazionalen aldeko borrokarekin elkartu behar da.

3+2 dekretua: karreraren suntsiketa, gradu tituluen balio-galtzea, gehiengoarentzat kostu ordainezinak eta irakasleen kaleratze masiboak!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

na ahal den hots gutxien ateratzeko eta erdi gordeka eta ahal den azkarren onartzeko, PPk dekretuz inposatu nahi izan du, 2015eko irailetik aplikatzeko, hau da, hurrengo ikasturtearen hasieratik.

GRADUEN BALIO-GALTZEA: LAU URTETIK HIRURA PASAKO DIRA ETA LAN MERKATUAN EZEREZEAN GERATUKO DIRA

Gaur egungo graduak lau urtetik hirura pasatzea da oinarritzko aldaketa. Dekretuak azaltzen duenez, izaera “basikoa” eta “orokorra” izango du, hau da, ez dira nahikoa izango beharrezko kualifikazio bat lortu eta kualifikazio altuko lanbide bat betetzeko: abokatua, kazetaria, ingeniaria, erizaina... Kualifikazio “espezializatu” hori lortzeko —dekretuko textuaren arabera— beharrezkoa izango da master bat egitea. Masterren iraupena urte batetik bira pasako da, honek suposatuko duen gastu ekonomikoarekin.

LAN MERKATUAN BALIOZKO TITULU BAT LORTZEKO BI URTEKO MASTERRA ORDAINDU BEHARKO DA GEHIENGOARENTZAT ORDAINEZINA IZANGO DEN PREZIOEKIN

Honek dakarrenaz ideia bat egiteko, unibertsitate publikoetan eskaintzen diren masterren gaur egungo prezioak hartu ditzakegu adibide bezala. Adibidez, Madrilgo Complutense Unibertsitatean (ikasle kopuruan aurrenekoa da) urte bateko masterren kostua urteko 4.000 eta 7.000 euro artekoa da.

Dekretu berriarekin, lan merkatuan errekonozitua izango den unibertsitate titulua lortzeko, bi urteko masterrak ordaindu beharko ditugu eta honen prezioa 8.000 eta 14.000 euro artekoa izan daiteke. Horrela garbi dago gutxiengo pribilegiatu batek bakarrik izango duela unibertsitate ikasketak ordaintzeko aukera, 20.000 eurora ere iritsi baitaiteke hauen gastua.

HAINBAT GRADU KENDU ETA MILAKA IRAKASLE KALERATUKO DITUZTE

Gaur egungo graduak izaera basiko eta orokorra izango duten hiru urteko gradu berrietara pasatzean,



gaur egungo graduak adar bereko beste gradu batzuekin fusionatuko dira, eta horrela gaur egun dauden asko desagertu egingo dira.

Beste aldetik, erreforma honek ondorio larriak eragingo dizkie irakasleei. Gaur egun dagoeneko graduatuko eta masterreko ikasleen artean harresi ekonomiko handia badago (1,4 milioi unibertsitate ikasleetatik 100.000 bakarrik dira, gaur egun, master bat ikas ahal dezaketenak), erraza da ikustea irakasle asko soberan geratuko direla graduatan ikasturte oso bat kentzean. Zer gertatuko zaie gaur egun 325.000 ikasleri klaseak ematen ari zaizkien irakasleei? Urte batzuetan unibertsitateko milaka irakasle kaleratuko dituzte.

ten ari zaizkien irakasleei? Urte batzuetan unibertsitateko milaka irakasle kaleratuko dituzte.

ZEIN IKASLE KALTETUKO DITU 3+2 DEKRETUAK?

Dekretua indarrean urte honetako irailean sartuko den arren, kaltetu bakarrik ez dira izango unibertsitatean datorren ikasturtetik aurrera hasten direnak; gaur egun ikasten ari direnak ere eragingo ditu. Lehenagotik 4tik 3 urtera pasako diren graduak hasi zituzten ikasleei ere aplikatuko zaie dekretu hau. Hau da, bigarren ikasturtean bazauz baina zure gradua 3 urtekoa izatera pasatzen da, dekretu berria aplikatuko zaizu.

Hau nahikoa ez balitz, graduko tituluen balio-galtzeak dagoeneko graduatuta eta lizentziatuta daudenei eragingo die, gradu tituluak edo lizentziaturak balio gutxiago izango baitu lan merkatuan. Gehiengoak ez dugun “espezializazio” master bat eskatuko zaigu.

EZIN DUGU ONARTU! UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ELITIZAZIOARI EZ!

3+2 dekretua oso eraso larria da, unibertsitate publikoaren aurkako benetako lehergailua. Aplikatzen bada, langileen seme-alabentzat, hau da, gehiengo handiarentzat, unibertsitateko atea behin betiko itxiko dira. Orain dela hainbat hamarkadetako unibertsitatea etorriko da, ikasketak egiteko aukera sektore aberatsenak bakarrik zuten garaikoa. Langile familetatik eta auzo apaletatik gatozenoi, gure gurasoak edo anai-arrebak langabezian ditugunoi, unibertsitatean

ikasi ahal izateko eskubidea kenduko zaigu.

Ikasle Sindikatutik uste dugu, neurri honek bakarrik erantzun sendoena merezi duela hezkuntza komunitate osoaren partetik. Baina dekretu hau azken urteetan hezkuntza publikoaren aurka eraman den erasoei gehitu zaie: 7.000 milioi euroko murrizketa, 32.000 irakasle kaleratzea, hezkuntzako LOMCE kontrarreforma frankista aplikatzea.

PPREN KONTRARREFORMAK KANPORA! WERT DIMISIOA!

Ikasle Sindikatua hezkuntza publikoa, doakoa, demokratikoa eta laikoa defendatzen duen ikasle erakunde ezkertiar, iraultzaile eta antikapitalista da. PP gobernura iritsi zenetik, gure erakundeak 19 greba orokor deitu ditu Wert Ministroaren kontrarreforma frankisten aurka Estatu guztian Marea Berdea bultzatuz. Borroka masibo eta sendoa egin du LOMCEren, beken dekretuaren, tasazoaren eta unibertsitate kontrarreforma berriaren aurka.

BORROKA ETA ANTOLAKUNTZA DIRA BIDE BAKARRA

Azken hamarkadetan aukera izan dugu gure auzoetan ikastetxe eta institutu publikoak izateko, hezkuntza doakoa eta 16 urtera arte derrigorrezkoa izateko edo familia apaleneko seme-alabek unibertsitatera joateko. Hau dena, gure gurasoen borrokari esker eta 70eko hamarkadako, 86/87 ikasturteko (garai honetan sortu zen Ikasle Sindikatua) eta hurrengo urteetako ikasle mobilizazio handiei esker lortu zen.

Krisi kapitalista aprobetxatuz, kasualitatea ez den iraganerako itzulera inposatu nahi digute. Langile familietako gazteoi hezkuntza eskubidea kendu nahi digute, kualifikaziorik gabe utzi nahi gaituzte



protestarik egin gabe bizitza osorako lan baldintza prekarioak eta miseriazko soldatak onar ditzagun. Aldi berean, aberatsak, bankariak eta enpresa handiak euren irabaziak handitzen ari dira gure zapalkuntzaren, gure pobrezia-aren eta baliabide publikoak lapurtzearen kontura. Baina, nola egin aurre eraso honi? Nola erantzun irakasle hezkuntza publikoa suntsitu nahi duten horiei, jendea beren etxetik botatzen duten horiei, osasuna pribatizatzen duten horiei, gure gurasoak kaleratzen dituzten horiei, Mordaza Legea inposatuz eskubide demokratikoekin amaitu nahi duten horiei edo gure nazio historikoetako ama hizkuntzak jazartzen dituzten horiei?

Modu bat bakarra dago: ikasle mugimendua antolatuz eta lapurren eta ustelen gobernu hau paretaren kontra jartzen ari den errebolta soziala bultzatuz. Gure indarrak elkartu behar ditugu, eta borroka tresna bat altxatu. Hori da Ikasle Sindikatuak nahi duena, hiri eta herrietan ikasle mugimenduaren erantzuna bateratuz, greba eta manifestazio sendoekin, kaleak betez eta gure borroka langile eta zapalduenekin lotuz.

Benetako lurrikara sozial eta politikoa islatu duten mobilizazio uholdea bizitu dugu urte hauetan. Mobilizazio masibo eta sendoekin PPren erasoak atzera botatzea posible dela egiaztatu dugu. Burgosko Gamonaleko bizilagunek lortu

zuten, Madrilgo Marea Zuriak sei ospitale publiko pribatizatzea saihestea lortu zuen, Madrilgo kale garbitzaileek atzera bota zituzten 1.100 kaleratze beren greba mugagabearekin, Coca Colako langileek enpresaren EEEda nulu deklaratzeko lortu dute, Gallardon eta Ana Matoren dimisioak... Hauek botatzea lortu badugu Wert botatzea ere posible da.

Ikasle Sindikatuaren ustez adibide hauek gidatu behar dute hezkuntza publikoaren aldeko borroka. PPren gobernu oso ahula da, baina horrek ez du esan nahi daukaten denbora gutxia ahal duten gehien erabiliko ez dutenik hezkuntza publikoaren aurkako erasoak gogortzeko. Horregatik, otsailaren 25 eta 26ko, eta martxoaren 24ko Ikasleen Greba Orokorren ondoren ere mobilizazioak sendotasun handienarekin jarraitu behar duela defendatzen dugu, erantzunak erasoen maila berean jarritz. Horregatik, Ikasle Abertzaleak kideei irakasle sindikatu etako zuzendaritzei —ELA, LAB, CCOO, UGT, Steilas eta CIG— eta guraso elkar-teei —EHIGE— dei egiten diegu denok batera borroka sendo eta bateratua antolatzeko denon artean.

- **3+2 DEKRETUARI EZ!**
- **LOMCERI EZ!**
- **UNIBERTSITATEAREN PRIBATIZAZIOARI EZ!**
- **HEZKUNTZA PUBLIKO ETA EUSKALDUNA!**

3+2 dekretua: karreraren suntsiketa, gradu tituluen balio-galtzea, gehiengoarentzat kostu ordainezinak eta irakasleen kaleratze masiboak!

Otsailaren 25 eta 26 eta martxoaren 24ko ikasle greben ondoren borrokak jarraitu egin behar du erasoak atzera bota arte!

IKASLE SINDIKATUA

Pren Gobernuak eta Jose Ignacio Wert Hezkuntza Ministro lotsagarriak gazteen eta langileen lorpen garrantzitsuenetako batekin amaitu nahi dute: goi mailako formakuntzarako sARBIDEA familien gehiengoarentzat. Ikasketak dirua zutenek bakarrik egin ahal zituzten eredura itzuli nahi dute, eta horretarako arrazoia oso argia da: goi mailako formakuntzara gutxiengo pribilegiatu bat bakarrik bideratu nahi dute, hauek baitira lanpostu onak bermatuta dituzten bakarrak. Gai-nontzekoentzat, gehiengoa, langa-beziaz eta prekarietatez betetako

etorkizuna prestatzen dute, eta, horrela, goi mailako ikasketak izateko eta kualifikazio on bat edukitzeko aukera kenduz, edozein lanpostu onartu behar izango dugun edo zuzenean langabezia zerrendara joan beharko dugun etorkizunera botatzen gaituzte.

Helburu nagusi honekin landu dituzte beren plan eta hezkuntza erreforma guztiak. Unibertsitatean orain dela urte batzuk hasi ginen erasoak jasaten: tasak %66raino iritsi ziren, beken kopuruak murrizketa handia jasan du eta hauek lortzeko betebeharrak gogortu egin dira. Neurri hauen ondorioz 45.000 ikasle unibertsitateetik kaleratu dituzte dirua ez edukitzeagatik. Bai-



na unibertsitate publikoa suntsitzeko helburuak abiadura bizian jarraitzen du. Moncloatik bota baino lehen plan elitizataileak ahal den urrutien eraman nahi dituzte.

NOLA ERAGINGO DIE 3+2 DEKRETUAK IKASLEEI?

3+2 dekretuak irakaskuntza unibertsitarioaren estruktura erabat aldatu nahi du. Errealitatean, lege berri baten inplikazioak ditu, bai-

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!
JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista